

## Egitura ekonomikoa eta erabateko lan zamaren banaketa: Hausnarketa bat

Lan banaketa sexualean aurkitzen dute askok emakumeen zapalkuntzaren muina (Federicci, 2018). Lanaren banaketa sexual hau neurtzeko balio duen indize bat Erabateko Lan Zama da. Indize honek soldatapeko lanean, etxeko/zaintza lanetan eta bolondres egindako lanetan emakume zein gizonen pasatako denbora neurtzen du (Mujika, 2016).

Zer adierazten digu indize honek? 1993-2018 bitarteko datuei erreparatuz gero, zera ikusiko dugu: Emakumeek soldatapeko lanari eskainitako denbora handitu egin dela, eta etxeko lanak eta zaintzari eskainitako denbora gutxitu, baino gizonen eskaintzen diotenaren bikoitza baino gehiago dela oraindik. Etxeko lanei eta zaintzari eskainitako denbora da emakume eta gizonen arteko erabateko lan zamaren desorekaren errudun argia. Honetaz gain, seinalatu behar da soldatapeko lanean ere arrakala bat dagoela: 1993tik 2018ra tartea murriztu bada ere, gizonen emakumeek baino gehiago parte hartzen dute bertan.

Datuak era egokian interpretatzeko, informazio osagarria edukitzea komeni da. Marina Sagastizabalek azaltzen duenez (Mujika, 2016), emakumeek etxeko lanetan zuten profesionalizazioa maila murriztu egin da, eta emakumeek lan batzuk egiteari utzi diote (arropa jostea, adibidez). Soziologo honek seinalatu duen bezala, ikusi beharko litzake lehen emakumeek egindako jardueren zenbatekoa izan den orain merkantilizatua eta egiten duen unitate domestikotik at dagoen emakume batek. Esango nuke etxeko lanetan emandako denbora gutxitzeko pentsatutako teknologiaren garapena ere kontuan hartu behar dela (garbigailuak etab.). Hain datu urrietatik ondorio kausalak ateratzeko ausardia behar bada ere, badirudi lotura bat dagoela emakumeen soldatapeko lanari eskainitako denboraren handitzearen eta etxeko lanei eskainitako denboraren gutxitzearen artean.

Etxeko lanei eskainitako denboraren arrakala ez da txikitu lanaren banaketa orekatuago bat dagoelako: Txikitu da, alde batetik, emakumeek denbora gutxiago eskaintzen diotelako, eta bestetik, gizon gehiagok hartzen dutelako parte, indibidualki denbora kopurua mantendu egin bada ere. Gainera, ikerketak erakutsi du gizonen nagusiki ezohiko jardueretan hartzen dutela parte (erosketak egin, haurra parkera eraman...) eta ez ohikoetan (janaria prestatu, garbiketa...) (Mujika, 2016).

Ikerketa honek beste datu batzuk ere eskaintzen ditu, adibidez, belaunaldi gazteengan handitu egin dela nesken Erabateko Lan Zama, eta mutilena berriz jaitsi. Lan banaketa sexuala, ez da, beraz, belaunaldi nagusien kontua (Telleria, 2016).

Sarritan, asalarizazioa proposatu da emakumeak etxeko eta zaintza lanetatik askatzeko errezeta gisa. Ildo honetako proposamenek ibilbide luzea dute emakumeen askapenaren aldeko mugimenduaren baitan; Virginia Woolfen (1938:187) etxekoandreen lana ordaindua izateko eskakizuna horren adibide dugu. Lan erreproduktiboak soldatapeko bilakatzearen

ondorioak, ez dira, ordea, askok nahi bezain berdinzaleak. Maria Dolors Comas d'Agermir (2014) antropologoak Kataluinan egindako ikerketa batek, adibidez, erakusten du zaintza zerbitzu sozialen bidez soldatapeko bilakatzeak ez duela inolaz ere lanaren banaketa sexualarekin hausten, kontrakoa, berrestu egiten duela. Gainera, jasotako diruaren urritasunak emakumeen pobrezia eta dependentzia betikotzen dute. Askotan lan feminizatuak soldatapeko bilakatzeak zaintza kate global esaten zaien eraketa dakar; horrela, zentzoko emakume batzuk lan batzuk egiteari uzten diote, hegoalde globaleko beste emakume batek egiten dituelako.

Silvia Federicik (2018) seinalatzen duen bezala, emakumeen inkorporazioak lan merkatuan autonomia ekarri dio emakumeari, bai, gizonarekiko; kapitalarekiko, ordea, emakumea inoiz baino lotuago dago. Honekin ez dut esan nahi, noski, emakumeak lan merkatura integratu izana gauza negatiboa denik, baina haien askapena ekarri duenaren ideia ezeztatu nahiko nuke. Federicik paralelismo bat egiten du: “Emakumeak fabriketan sartu nahi dituzten bezala, fabrikak “Hirugarren mundura” eraman nahi dituzte” (2018:53).

Emakumeak soldatapeko lanean ahalik eta gehien integratzean emakumeen askapena ikusten dutenen aurkako kritika marxista ulertzeko, ordea, komeni da lanari buruzko gauza batzuk kontuan edukitzea. Gizarte orotan, gizakiak natura transformatzen du, lan egiten du, bere erreproduzio soziala bermatzeko. Aldi berean, lan tekniko-material edo konkretu hau era ezberdinetan antolatzen da sozialki, ekoizpen harreman eta indarren arabera (Rubin, 1924:190).


Gure gizartean, lan konkretu ezberdinak merkatuan balio gisa trukatzeko soilik bilakatzen dira lan sozial. Ekoizpenaren helburua ez da giza beharrak asetuko dituzten erabilera balioak sortzea, baizik eta balioa duten merkantziak ekoiztea, salduak izatean balioa metatzea ahalbidetuko diotenak ekoizpen bitartekoen jabeak (Rubin, 1924: 83). Hori horrela, Erabateko Lan Zamaren indizeak erakusten du emakumeek gaur egun denbora gehiago pasa behar dutela beste batentzako balioa sortzen (hau da, esplotatuak izatean) bere eta bere ingurukoentzako erabilera balioak<sup>1</sup> sortzen baino. Alde batetik, esan genezake emakumeen asalarizazioa hau positiboa dela, langileria baldintza berdina goetan egoteak haren antolakuntza erraztu dezakeelako; baino beste alde batetik seinalatu behar dugu I) emakumeen asalarizazioa ez dela era parekidean eman eta lan merkatuan ere lan banaketa sexuala eta emakumearen devaluazioa errepikatzen dela, eta II) unitate ekonomiko batek (familia batek, hitzaren zentzu zabalean) gaur egun soldatapeko lanari denbora gehiago eskaini behar izateak (soldata bakarra ordez bi behar izatea baita ohikoa) kapitalarekiko dependentzia handiagoa dela seinalatzen du.

---

<sup>1</sup> Gauzen erabilera balioa haien funtzio konkretua, praktikoa, da, balioari kontrajarria. Adibide bat jartze arren: Gizarte guztietan, bizkotxoek jana izateko erabilera balioa daukate. Kapitalismoan soilik sortzen ditu pertsona batek egunean 3000 bizkotxo hirugarren baten poltsikoa hazteko. Bigarren kasu honetan ekoizpenaren helburua ez da erabilera balioak sortzea, baizik eta balioa ekoiztea, akumulazio pribaturako.

Zaintza eta etxeke lanak sozialki antolatuta egon ordez orokorrean eremu pribatura baztertuta egoteak hutsune handiak sortzen ditu; azken urteetan joera hau hainbeste nabarmendu da zein feminista askok “zaintzaren krisia” esan dioten. Merkatuan ere, gainera, lan feminizatuak, askotan, zaintzarekin lotuak, prekario eta desegonkorrak dira. COVID-19aren pandemiak agerian utzi du arazo hau, urte luzez murrizketak jasotako osasun publikoa gaixoz betetzen ari zela. Egoera orokorrago baten adibide diren EHUren garbitzaileak haien greba etetera izan ziren behartuak, eta pandemia eta urtebetera, haien lan karga izugarri hazi da; bitartean, plantilla eta soldata berdin mantentzen dira. Haratago joanez, itxialdiak argi utzi zuen biztanleria zaugarrienak (batez ere, nagusiak) zer babes gutxi zeukaten, eta zer bakarrik zeuden horietako asko eta asko. Honen aurrean, elkartasun sareak sortu ziren, janaria bezalako minimoak bermatuak izango zirela ziurtatzeko.

Hauek adabakiak besterik ez dira, ordea; ekoizpenaren helburua aberastasuna akumulatzen duen gizarte batean miseria gordinena apaltzeko saiakerak. Arazoa, baina, errotik dator: Nola azaldu bestela pandemia global baten testuinguruan izozkien nahiz kotxeen ekoizpen masiboa “beharrezko” izendatzea? Nola azaldu jendea lanera joatera behartu zutela osasun larrialdi historiko baten erdian, seme alaben eskola itxi zutelarik? Neurri hauek kritika asko piztu dituzte mundu mailan, baita meme umoretsuen forman ere (1. irudia), gaia berez batere farregarria izan ez arren.



1. irudia. “Nola arraio naiz ni langile esentziala?”

Guk, gure aldetik, txandak egin genituen otorduen prestaketa eta garbiketa antolatzeko, ez baitzen lan makala hainbeste pertsonentzat sukaldatzea (etxe okupatu batean eman genuen itxialdia bostpasei lagunek). Horretaz gain garbiketa egunak jartzen genituen, eta bestelako lan batzuk ere (etxea margotzea, gela batean elektrizitatea jartzea...) egin genituen. Egun batean, gure bizilagun zen gizon batek lixiba eta amoniakoa nahastu zituen nahigabe, eta denak egon ginen haren inguruan, zer egin ez genekiela, arnasa nekez nola hartzen zuen begira, izerdi tantek arropa blai egiten zioten bitartean. Etorkina zen eta etzuen hospitalera joan nahi. Eskerrak, beste bizilagun bat asmatikoa zen, eta bere aparatu bat utzi zion, eta handik ordu erdira apur bat lasaitu zen bere arnasa. Ez dakit zenbat egun egon zen gero ia hitzik egin gabe, nahasketa toxikoa arnasteak barrena erre baitzion.

Bizitzeko behar beharrezkoa dugun hori: osasuna, janaria, garbitasuna, ongizate emozional eta psikikoa... ez lirake irabazi pribatuaren akumulazioaren mende egon behar. Nola da posible unibertsora sateliteak bidaltzeko gai den gizarte batek bere kideak miseriara kondentzera, bizitza guztia lanaren mende jartzera? Nola da posible, halako aberastasuna edukita, hainbeste jende bere erreproduzio sozialerako baliabiderik gabe egotea? Nola da posible, urte luzetako borroka eta gero emakumea oraindik ere lan banaketa sexualaren sarean harrapatua egotea, bere lana devaluatua delarik?

Honen aurrean, ni Tithi Bhattacharyarena (2015) bezalako proposamenen aldekoa naiz: Erreproduzio sozialaren esfera ere klase borrokarako esparru bezala uelrtu behar dugu, antolakuntza iraultzailerako espazio gisa. Gasteizko Etxebizitza Sindikatua eta Elkartasun Biltegia egiten ari diren bezala, etxebizitza eza, janari eza, familiako kideren bat zaintzeko ezintasuna... borroka eta antolakuntzarako espazio potentzialak dira. Bide horretan beharrezkoa dugu era pribatuan egindako lanak era berri batean antolatzen hastea. Ziakhusek kanta harek dioen bezala, “*sistemak zaintzen ez duena zainduko dugu guk!*” .

## Bibliografia

Bhattacharya, Tithi (2015). “How Not To Skip Class: Social Reproduction of Labor and the Global Working Class”. Viewpoint Magazine [On-line], eskuragarri hemen: <http://www.tithibhattacharya.net/social-reproduction-theory>

Comas d’Amermir, Dolors (2014). Los cuidados y sus máscaras. Buenos Aires: Mora.

Federici, Silvia (2018). El patriarcado del salario: Críticas feministas al marxismo. Madrid: Traficantes de Sueños.

Mujika, Amagoia (2016). “Emakumeak gizonaren rola hartu du lan merkatuan, baina gizonak ez du bere egin emakumearena zaintzan eta etxeko lanetan”. Gaur8 [On-line], eskuragarri hemen: [https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8\\_2016-03-05-06-00/hemeroteca\\_articles/emakumeak-gizonaren-rola-hartu-du-lan-merkatuan-baina-gizonak-ez-du-bere-egin-emakumearena-zaintzan-eta-etxeko-lanetan](https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8_2016-03-05-06-00/hemeroteca_articles/emakumeak-gizonaren-rola-hartu-du-lan-merkatuan-baina-gizonak-ez-du-bere-egin-emakumearena-zaintzan-eta-etxeko-lanetan) [Kontsulta eguna: 2021/04/15]

Woolf, Virginia (1938). Three Guineas. Oxford: Oxford University Press.